

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 763/2008 (EE) ERREGELAMENDUA
2008ko uztailaren 9koa, populazio- eta etxebizitza-errolde buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) N° 763/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 9 de julio de 2008, relativo a los censos de población y vivienda (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 218/14 de 13/8/2008)

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 763/2008 (EE) ERREGELAMENDUA

2008ko uztaillaren 9koa

populazio- eta etxebizitza-erroldei buruzkoa

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu eta, bereziki, 285. artikuluko 1. paragrafoa aztertu du,

Batzordearen proposamena aztertu du,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽¹⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Batzordeak (Eurostatek) Tratatuaren 2. eta 3. artikuluetan esleitu zaizkion lanak betetzeko gaitasuna izateko, populazioari eta etxebizitzari buruzko datu fidagarri, zehatz eta konparagarriak izan behar ditu. Erkidego mailan konparagarritasun-egokia dutela bermatu behar da, bai metodologiari, definizioei eta estatistikak egiteko datu eta metadatuak maneiatzeko programei dagokionez.

(2) Erkidegoko alderdi jakin batzuetan eragina duten eskualdeko politikak, gizarte politikak eta ingurumeneko politikak aztertu eta definitzeko, aldian behin populazioari eta herritarren familia-, gizarte-, eta ekonomia-ezaugarriei buruzko datu estatistiko nagusiak behar dira, baita beren etxebizitzaren baldintzei buruzko datuak ere. Bereziki, Erkidegoak abian jarritako laguntza-ekimenetan laguntzeko, besteak beste gizareratzea sustatzea, eskualde mailako kohesioaren jarraipena egitea, ingurumena babestea eta energia-eraginkortasuna sustatzea, beharrezkoa da etxebizitzari buruzko informazio zehatza biltzea.

(3) Metodologia eta teknologia-aurrerapenak kontuan hartuta, jardunbide egokiak identifikatu behar dira, eta estatu kideetan erroldak osatzeko datu-iturri eta metodologiak hobetzea sustatu behar da.

(4) Estatu kideek emandako datuen konparagarritasuna bermatu eta Erkidego mailan sintesi fidagarri bat egin ahal izateko, erabilitako datuak erreferentzia-urte berekoak izan beharko dira.

(5) Kontseiluaren 322/97 (EE) Erregelamenduak, 1997ko otsailaren 17koak, Erkidegoko estatistikari buruzkoak ⁽²⁾, ezartzen du Erregelamendu honetako xedapenen erreferentzia-esparrua. Bertako xedapenen arabera, estatistikak biltzeko inpartzialitate-printzipioa bete beharko da, hain zuzen ere objektibotasun eta independentzia zientifikoa, baita gardentasun, fidagarritasun, egokitasun eta kostu/eraginkortasunaren nahiz estatistika-sekretuaren printzipioak ere.

(6) Estatistika-sekretuaren arabera igorritako informazioa arautzen dute 322/97 (EE) Erregelamenduak eta Kontseiluaren 1588/90 (Euratom, EEE) Erregelamenduak, 1990eko ekainaren 11koak, estatistika sekretuak babestutako informazioen Europako Erkidegoen Estatistika Bulegora bidaltzeari buruzkoak ⁽³⁾. Erregelamendu horiek xedatutakoaren arabera hartutako neurriek bermatzen dute datu konfidentziaren babes fisiko eta informatikoa, eta Erkidego mailako estatistikak egin edo zabaltzen direnean, datu horiek modu bidegabean edo estatistikarekin zerikusirik ez duten helburuetarako erabiltzea ekiditen dute.

(7) Erregelamendu honen arabera, Erkidego mailako estatistikak osatu eta zabaltzeko, kontuan hartu beharko dituzte herrialde mailako eta Erkidego mailako estatistika-arduradunek 2005eko otsailaren 24ko Europa mailako estatistiketako jardunbide egokiaren Kodean ezarritako printzipioak. Kode hori onartu zuen Kontseiluaren 89/382/EE Euratom Erabakiak ezarritako estatistika-programarako Komiteak ⁽⁴⁾, eta estatu kideetako eta Erkidegoko estatistika-arduradunen independentziari, osotasunari eta erantzukizunari buruzko Gomendioan sartu zuen.

(8) Erregelamendu honetako helburuak, hau da, Erkidego mailako populazio eta etxebizitzari buruzko estatistika konparagarri eta osoak biltzea, ezin dituzte estatu kideek bakarrik lortu, ez baitute kalitate bateratuko estatistika baldintzarik, eta ez baitago gardentasunik metodologian ere. Horrenbestez, helburu hori Erkidego mailako estatistika-esparruan lortzea errazagoa denez, Erkidegoak Tratatuaren 5. artikuluan aipatutako subsidiariotasunaren printzipioaren arabera neurriak har ditzake. Artikulu

(1) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008ko otsailaren 20koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko ekainaren 23koa.

(2) L 52 EO, 1997.2.22koa, 1. or. Batzordearen 1882/2003 [EE] Erregelamenduak (L 284 EO, 2003.10.31koa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

(3) L 151 EO, 1990.6.15koa, 1. or. Azken aldiz, 1882/2003 [EE] Erregelamenduak aldatu zuen Erregelamendua.

(4) L 181 EO, 1989.6.28koa, 47. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

horretan bertan azaldutako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erregelamendu hau ez doa helburu horiek lortzeko beharrezkoa denaz harago.

(9) Erregelamendu hau gauzatzeko beharrezko neurriak onartu behar dira Batzordeari esleituriko gauzatzeko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/CE Erabakiaren arabera ⁽¹⁾.

(10) Bereziki komenigarria da Batzordeari eskumenak ematea honek hurrengo erreferentzia-urteak ezartzeko baldintzak zehaztu eta estatistika datu eta metadatuak biltzeko programa erabakitzeko. Neurri horiek orokorrak direnez, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen dituztenez, eta batzuetan funtsezkoak ez diren elementu berriak ezartzen dituztenez, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluan aurreikusitako kontrol-erregelamendurako prozeduraren arabera egingo dira.

(11) Estatistika-programaren Komiteari kontsulta egin zaio 89/382/EEE Euratom Erabakiko 3. artikuluan xedatutakoren arabera.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Helburua

Erregelamendu honek populazio eta etxebizitzari buruzko datu zehatzak aurkezteko arau bateratuak ezartzen ditu.

2. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honi dagokionez, honako definizio hauek zehazten dira:

- a) «Populazioa». Estatu, eskualde edo lekuko populazioa, erreferentzia-datan bertan bizi dena.
- b) «Etxebizitza». Ohiko etxebizitza eta eraikina, baita ostatuak ere, eta populazioaren eta etxebizitzaren arteko harremana estatu, eskualde eta tokiko mailan erreferentzia-datan.
- c) «Eraikinak». Pertsonen ostatu emateko etxebizitzak dituzten eraikin iraunkorrak; eta bigarren mailako edo aldi baterako erabiltzen diren ohiko etxebizitzak, baita etxebizitza hutsak ere.
- d) «Ohiko etxebizitza». Eguneroko bizitzan, pertsona batek bere atsedenaldia igarotzen duen lekua, aisialdirako, oporretarako, lagun nahiz senideak bisitatzeko, lanerako, mediku-tratamendua jasotzeko edo erlijio erromesaldia egiteko, handik kanpo igarotzen dituen epeak kontuan hartu gabe.

Eremu geografikoko ohiko egoiliar izango dira baldintza hauek betetzen dituztenak soilik:

- i) erreferentzia-data eguna baino lehen, gutxienez hamabi hilabetez etengabeko epean bere ohiko etxebizitzan bizi izan den pertsona, edo
 - ii) erreferentzia-data aurreko hamabi hilabeteetan beren ohiko etxebizitzara iritsi diren pertsonak, baldin eta bertan gutxienez urtebete bizitzeko asmoa badute.
- i) eta ii) idatz-zatietan aipatutako baldintzak betetzen ez direnean, “ohiko etxebizitza” izango da pertsonaren etxebizitza legal edo erregistratua;
- e) «Erreferentzia-data». Estatu kideak emandako datuek aipatzen duten data, 5. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoari jarraiki.
 - f) «Nazionala». Estatu kide baten lurraldeari buruzkoa.
 - g) «Eskualdekoa». NUTS 1, NUTS 2 eta NUTS 3 mailetan, bertsio aplikagarrian azaltzen den moduan, erreferentzia-datan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1059/2003 (EE) Erregelamenduak ⁽²⁾ ezartzen duen lurralde-unitate estatistikoaren nomenklaturan (NUTS) aipatzen den bezala.

(1) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 2000 EO, 2006.7.22koa, 11. or) aldatutako Erabakia.

(2) L 154 EO, 2003.6.21ekoa, 1. or. Azken aldiz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 176/2008 [EE] Erregelamenduak (L 61 EO, 2008.3.5ekoa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

h) «Lekukoa». Llekuko administrazio-unitateen 2. maila (2 LAU maila).

i) «Populazio eta etxebizitza-erroldei buruzko funtsezko ezaugarriak». Lurralde jakin bateko banakako zenbaketa, aldebereotasuna eta unibertsaltasuna, esparru txikiei buruzko datuen eskuragarritasuna eta aldizkakotasun zehaztua.

3. artikulua

Datuak aurkeztea

Estatu kideek pertsona, familia eta etxebizitzetako demografia-, gizarte- eta ekonomia-ezaugarriei buruzko datuak aurkeztuko dizkie Batzordeari (Eurostat), baita etxebizitzetako buruzko datuak ere estatu, eskualde eta lekuko mailan, betiere eranskinean zehaztutako modalitatearen arabera.

4. artikulua

Datu-iturriak

1. Estatu kideek hainbat datu-iturri erabili ahal izango dituzte estatistiketarako oinarri gisa, bereziki honako iturrietan oinarritutakoak:

- a) errola klasikoak;
- b) erregistroetan oinarritutako errolak;
- c) errola klasikoaren eta laginketa bidezko inkestaren konbinazioa;
- d) erregistroetan oinarritutako errolaren eta laginketa bidezko inkestaren konbinazioa;
- e) erregistroetan oinarritutako errolaren eta errola klasikoaren arteko konbinazioa;
- f) erregistroetan oinarritutako errolaren, laginketa bidezko inkestaren eta errola klasikoaren konbinazioa; eta
- g) txandakako laginketa bidez egindako inkestak (etengabeko errolak).

2. Estatu kideek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte datuen babeserako esparruan baldintza guztiak betetzeko. Erregelamendu honek ez ditu eragotziko estatu kideek datuen babeserako ezarritako xedapenak.

3. Estatu kideek Batzordeari (Eurostat) jakinaraziko dizkiote Erregelamendu honek xedatutakoaren arabera bidalitako estatistika-datuaren egindako berrikuspen eta zuzenketak, baita hautatutako datu-iturri eta metodologiaren egindako edozein aldaketa ere, gehienez berrikusitako datuak argitaratu baino hilabete lehenago.

4. Estatu kideek, ahal duten heinean behintzat, bermatu beharko dute Erregelamendu honetako xedapenak betetzeko erabilitako datu-iturri eta metodologiak 2. artikuluko i) idatz-zatian aipatutako populazio eta etxebizitza-errolaren funtsezko ezaugarriak betetzen dituztela. Etengabe ahaleginak egingo dituzte funtsezko baldintza horiek betetzeko maila handitzeko.

5. artikulua

Datuak igortzea

1. Estatu kide bakoitzak bere erreferentzia-data ezarriko du. Erreferentzia-data hori Erregelamendu honetan oinarritutako urte batekoa izan beharko da (erreferentzia-urtea). Lehen erreferentzia-urtea 2011 izango da. Batzordeak (Eurostatek) hurrengo erreferentzia-urteak zehaztuko ditu 8. artikuluko 3. paragrafoan xedatutako arazuko kontrol-prozedurari jarraiki. Erreferentzia-urteak hamarkada hasierako urteak izango dira.

2. Estatu kideek azken datuak (balioztatuak eta gehituak) eta metadatuak bidali beharko dizkiote Batzordeari, Erregelamendu honek xedatutakoari jarraiki, erreferentzia-urtea amaitu eta gehienez 27 hilabeteko epean.

3. Batzordeak programa bat zehaztuko du Erregelamendu honetako baldintzak betetzeko bidali beharreko datu eta metadatu estatistikoentzat, 8. artikuluko 3. paragrafoan zehaztutako arazuko kontrol-prozeduran xedatutakoaren arabera.

4. Batzordeak (Eurostatek) Erregelamendu honetan xedatutako gaiiei buruzko xedapen teknikoak aplikatuko ditu, baita bereizketak ere, 8. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

5. Estatu kideek formatu elektronikoan bidaliko dizkiote Batzordeari (Eurostat) datu eta metadatu baliozkotuak. Batzordeak (Eurostat) formatu tekniko egokia hartuko du, eta formatu hori erabili beharko da 8. artikuluko 2. paragrafoan zehaztutako arauzko prozeduraren arabera beharrezkoak diren datuak igortzeko.

6. 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, berrikuspen edo zuzenketarik egiten bada, estatu kideek zuzendutako datuak Batzordera (Eurostat) bidali beharko dituzte, gehienez ere, berrikusitako datuak argitaratzeko egunean.

6. artikulua

Kalitatea ebaluatzea

1. Erregelamendu honetan, alderdi hauek aplikatuko dira igorri beharreko datuen kalitatea ebaluatzeko:

— «Egokitasunak» aipatzen du estatistikek zein neurritan erantzuten dien erabiltzaileen egungo premiei eta premia potentzialei.

— «Zehaztasuna» da estimazioek benetako balio ezezagunekin duten bat-etortzea.

— «Aukerak» eta «zehaztasunak» erreferentzia egiten diote erreferentzia-aldia amaitu eta emaitzak eskuragarri egon arteko epeari.

— «Erabilerraztasunak» eta «argitasunak» erreferentzia egiten diete erabiltzaileek datuak lortu, erabili eta interpretatzeko baldintza eta xedapenei.

— «Konparagarritasuna» da neurketarako tresna eta prozeduren eta aplikatutako kontzeptu estatistikoaren arteko aldeek sortzen duten eragina, eremu geografiko edo sektore-eremu ezberdinen artean nahiz denboran zehar datu estatistikoak konparatzean.

— «Koherentzia» da datuak hainbat modutan eta erabileratan konbinatu ahal izateko egokitasuna.

2. Estatu kideek aurkeztutako datuen kalitateari buruzko urteko txostena aurkeztu beharko diote Batzordeari (Eurostat). Testuinguru horretan, estatu kideek azaldu beharko dute zein neurritan betetzen dituzten hautatutako datu-iturriek eta metodologiek populazio eta etxebizitza-errolaren funtsezko ezaugarriak, 2. artikuluko i) idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

3. Kalitatearen ebaluaziorako alderdiak, hain zuzen ere 1. paragrafoan aipatutakoak, Erregelamendu honek araututako datuetan aplikatzen direnean, kalitateari buruzko txostenen egitura eta modalitateak zehaztuko dira 8. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako arauzko prozeduraren arabera. Batzordeak (Eurostat) ebaluatuko du igorritako datuen kalitatea.

4. Batzordeak (Eurostat) eta estatu kideetako agintari eskudunek metodologia-gomendioak egingo dituzte sortutako datu eta metadatuaren kalitatea bermatzeko, betiere kontuan hartuz 2010eko populazio eta etxebizitza-errolak egiteko Europako Estatistikari Biltzarrak emandako Gomendioak.

7. artikulua

Aplikazio-neurriak

1. Jarraian aipatzen diren neurriak beharrezkoak dira Erregelamendu hau aplikatzeko, eta 8. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako prozedura erabiliz ezarriko dira:

a) Batzordeak (Eurostatek) Erregelamendu honetan xedatutako gaiei buruzko xedapen teknikoak, baita banaketak ere, 5. artikuluko 4. paragrafoan xedatutakoari jarriki.

b) Formatu tekniko egokia aplikatzea, 5. artikuluko 5. paragrafoan xedatutakoari jarraiki.

c) Kalitateari buruzko txostenen modalitate eta egiturak, 6. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoari jarraiki.

2. Jarraian ageri diren neurriak beharrezkoak dira Erregelamendu hau aplikatzeko, eta horien helburua da Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea eta Erregelamendua elementu berriekin osatzea. Neurri horiek 8. artikuluko 3. paragrafoan zehaztutako arauzko kontrol-prozeduraren bidez ezarriko dira:

a) erreferentzia-urteak ezartzea, 5. artikuluko 1. paragrafoan zehazten den moduan, eta

b) datu eta metadatu estatistikoak erabiltzeko programa ezartzea, 5. artikuluko 3. paragrafoan xedatzen denari jarraiki.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Oinarri gisa, kontuan hartu beharko da hartutako neurrien onurek neurrien kostua konpentsatu behar dutela, eta kostu nahiz karga osagarri horiek arrazoizko muga baten barne egon behar direla.

8. artikulua

Komitearen prozedura

1. Batzordeak programa estatistikoaren Komitearen laguntza izango du.
2. Atal honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5. eta 7. artikulua aplikatuko dira, bertako 8. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe.

1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluan 6. idatz-zatian bilduriko epea hiru hilekoa izango da.

3. Atal honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/CE, Erabakiko 5 bis artikuluko 1. eta 4. paragrafoen bitartekoa eta 7. artikulua aplikatuko dira, bertako 8. artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe.

9. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratzen den egunetik hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak izango dira eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak.

Estrasburgon eginga, 2008ko uztailaren 9an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean

Presidentea

J.-P. JOUYET

ANEXO

Temas que deben incluirse en los censos de población y vivienda

1. Temas relativos a la población
 - 1.1. Temas obligatorios para los niveles geográficos: NUTS 3 y UAL 2
 - 1.1.1. Temas no derivados
 - Lugar de residencia habitual
 - Sexo
 - Edad
 - Estado civil legal
 - País/Lugar de nacimiento
 - País de nacionalidad
 - Lugar de residencia habitual anterior y fecha de llegada al lugar actual, o lugar de residencia habitual un año antes del censo
 - Relación entre los miembros del hogar
 - 1.1.2. Temas derivados
 - Población total
 - Localidad
 - Situación en cuanto al hogar
 - Situación en cuanto a la familia
 - Tipo de núcleo familiar
 - Tamaño del núcleo familiar
 - Tipo de hogar privado
 - Tamaño del hogar privado
 - 1.2. Temas obligatorios para los niveles geográficos: nacional, NUTS 1 y NUTS 2
 - 1.2.1. Temas no derivados
 - Lugar de residencia habitual
 - Ubicación del lugar de trabajo
 - Sexo
 - Edad
 - Estado civil legal
 - Situación de actividad actual
 - Ocupación

-
- Sector (rama de actividad económica)
 - Situación en el empleo
 - Nivel de estudios
 - País/Lugar de nacimiento
 - País de nacionalidad
 - Residencia en algún momento en el extranjero y año de llegada al país (desde 1980)
 - Lugar de residencia habitual anterior y fecha de llegada al lugar actual o lugar de residencia habitual un año antes del censo
 - Relación entre los miembros del hogar
 - Régimen de tenencia de la vivienda
- 1.2.2. Temas derivados
- Población total
 - Localidad
 - Situación en cuanto al hogar
 - Situación en cuanto a la familia
 - Tipo de núcleo familiar
 - Tamaño del núcleo familiar
 - Tipo de hogar privado
 - Tamaño del hogar privado
2. Temas relativos a la vivienda
- 2.1. Temas obligatorios para los niveles geográficos: NUTS 3 y UAL 2
- 2.1.1. Temas no derivados
- Tipo de local de habitación
 - Ubicación del local de habitación
 - Régimen de ocupación de viviendas convencionales
 - Número de ocupantes
 - Superficie útil y/o número de habitaciones de las unidades de vivienda
 - Viviendas por tipo de edificio
 - Viviendas por período de construcción

- 2.1.2. Temas derivados
 - Estándar de densidad
 - 2.2. Temas obligatorios para los niveles geográficos: nacional, NUTS 1 y NUTS 2
 - 2.2.1. Temas no derivados
 - Condiciones de vivienda
 - Tipo de local de habitación
 - Ubicación del local de habitación
 - Régimen de ocupación de viviendas convencionales
 - Tipo de propiedad
 - Número de ocupantes
 - Superficie útil y/o número de habitaciones de las unidades de vivienda
 - Sistema de suministro de agua
 - Instalaciones de retretes
 - Instalaciones de baños
 - Tipo de calefacción
 - Viviendas por tipo de edificio
 - Viviendas por período de construcción
 - 2.2.2. Temas derivados
 - Estándar de densidad
-